

Zer eta egitura miratibo bat euskaraz¹

A Surprising Mirative Coordinate Structure in Basque

XABIER ARTIAGOITIA

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
xabier.artiagoitia@ehu.eus

Recepción: abril de 2025. Aceptación: abril de 2025.

Laburpena: Euskarak badauka [NZ-hitza eta X] motako juntadura egitura bat harridura adierazteko, de Rijkek (1972, 2008) deskribatua eta euskal gramatika lanetan ia oihartzunik eduki ez duena. Lan honek proposatzen du egitura hori bete-betean sartzan dela hizkuntza tipologian (DeLancey 1997, 2001; Aikhenvald 2012) proposatu den miratibitatearen esparruan eta bat egiten duela foku miratiboa (Fábregas 2016, Cruschina 2021) deritzonaren deskribapenarekin. Juntadura egituran, NZ-hitzak balio existentziala du («bada 'x' bat») eta bigarren juntagaiak NZ-hitzak murrizten duen aldagaiaren balioaren identifikazioa egiten du, balio hori esperogabea eta ohiz kanpokoa delako ñabardura gehituta. Egitura hau XIX. mendetik aurrera lekukotzen da euskara idatzian eta Hego Euskal Herrian baino ez bide da ezaguna.

Gako-hitzak: miratibitatea, foku miratiboa, NZ-hitzak, juntadura, euskal gramatika

Abstract: Basque has a coordinate structure of the type [wh-word and X] to express surprise, described by de Rijk (1972, 2008) and scarcely studied in Basque grammatical works since. This article argues that this structure aligns fully with the typological category of mirativity (DeLancey 1997, 2001; Aikhenvald 2012) and corresponds to the description of mirative focus (Fábregas

¹ Zorretan nago I. Arteatx, M. Azkarate, L. Intxausti eta K. Zuazorekin datu batzuk nirekin komentatzearren eta M. Huarte eta S. Monforterekin aurreko bertsio bati egindako oharrengatik. Eskerrak eman nahi dizkiet, halaber, bi berrikusle anonimori euren iruzkinengatik. Artikulua Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateetako Ministerioaren PID2022-140336NB-I00 proiektuaren barruan garatu da. Artikuluan barrena honako laburdurak erabili ditut: A = aditz; A2 = aditza bigarren; D = determinatzaile; Dnb = Denbora; DS = determinatzaile-sintagma; EPD = *Ereduzko Prosa Dinamikoa*; F = foku; JEM = Juntadura Egituren Murrizketa; Konp = konplementatzaile; O = osagarri; OEH = Orotariko Euskal Hiztegia; S = sintagma.

2016, Cruschina 2021). Within the construction, the wh-word (first conjunct) carries an existential meaning («there is an 'x'»), while the second conjunct specifies the value of the variable introduced by the wh-word, adding the nuance that this value is unexpected or extraordinary. Attested in written Basque since the 19th century, the [wh-word and X] structure appears to be restricted to the Southern Basque Country.

Key words: mirativity, mirative focus, wh-words, coordination, Basque grammar

I. SARRERA

Lan honetan, gaur egungo euskaran erabiltzen den honako egituraren deskribapen eta azalpen xumea egin nahi dut:

(1) Gaur *nork eta Eibarrek* sartu dizkio Real Madrid taldeari lau gol!

Egiturak [NZ-hitza eta X]² eskemari jarraitzen dio eta gutxi aztertua izan da euskaraz, jarraian egiaztatuko dugunez. Nire proposamena da halako egitura bat foku miratibotzat jo daitekeen egitura dela eta, beraz, hiztunak adierazten duena dela X horrek NZ-hitza murritzten duen aldagaiaren balio ustekabekoa eta harrigarria daukala; goiko adibideari erreparatuta, honelatsu laburbildu genezake interpretazioa:

(2) Gaur x-k RM taldeari lau gol sartu dizkio, x = Eibar, eta Eibar ≠ x-rako espero daitekeen balioa

Hala ere, delako egiturak ez du beti fokuari ohiko aditz aurreko kokapena hartzen, eta, oro har, miratibitatea (hiztunak esperogabea denaren aurrean adierazi nahi duen harridura alegia) zentzu zabalean adierazteko modu bat ere izan daiteke.

Artikulua honela dago antolatuta: lehenik eta behin, labor-labor azalduko dut zertan diren miratibitatea eta foku miratiboaren fenomenoak bigarren atalean. Ondoren, euskaraz egitura honetaz dauden aurrekariak berrikusiko ditut, funtsean de Rijken (1972, 2008) lanak eta Amundarain (2021) aipatzeko. Laugarren atalean, egiturak dituen ezaugarriak xeheki berrikusiko ditut eta gaur egungo testuetatik (zehazki *Ereduzko Prosa Dinamikoa* corpusetik) ateratako hainbat adibide eta lekukotasun ekarriko ditut hona, bosgarren atalean analisi proposamen bat egiteko. Gero, seigarren atalak egituraren jatorriaz hausnartuko du Amundarainek (2021) esandakoaren kariatara. Azkenik, ondorioak jasoko ditut zazpigarren atalean.

² «NZ-hitza» esatean, *nor*, *zer*, *non*, *nola*, *zergatik* eta antzekoez ari naiz, noski; gero argi geratuko den arrazoiagatik, «galde-hitza» deitura baztertu dut, gehienetan sinonimoak diren arren, ikergai dugun egituran, hain zuzen, nire ustez NZ-hitza *galdetzaile* ez direlako.

II. ZER DIRA MIRATIBITATEA ETA FOKU MIRATIBOA?

DeLanceyren (1997) lan aitzindaritik aurrera, *miratibitate* nozioa (semantika arloko) gramatika kategoria independente gisa eztabaidatutako gaia izan da hizkuntza tipologian. Miratibitateak informazio berria eta harrigarria adierazten du hiztunarentzat, eta beronek bere hizketa-ekintza markatu dezake ustekabearen ideia hori gauzatzeko. Zenbait hizkuntzalariren iritziz, miratibitatea ez da kategoria independentea, ebidentzialtasun-sistema duten hizkuntzetan ager daitekeen ezaugarri bat baino. Hala ere, DeLanceyk (2001) defendatzen du, ebidentzialtasuna eta miratibitatea kontzeptualki erlazionatuta dauden arren, «bakoitzak adierazten duela proposizio batek ezagutzaren ideal batetik aldentzeko dituen moduen indexazio gramatikala» (2001: 379). Kasu batean, indexazio gramatikala informazioaren ebidentzia-iturria da (hau da, lehen eskuko pertzepzioa, entzundako ebidentzia, edo inferentziak diren); bestean, berriz, indexazio gramatikala da ea informazioak hiztunarentzat ezagutza berria adierazten duen edo ezagutza hori dagoeneko hiztunaren munduaren irudian integratuta dagoen. Definizio honen arabera, argi ikusten da bi kategoriek rol desberdinak dauzkatela eta, ziurrenik, ez daudela banaketa osagarrian. DeLanceyk (2001) Kanadako Dene familiako slavey hizkuntzaren ‘hare’ dialektoa ipintzen du miratibitate hutsaren adibidetzat: hizkuntzak badu partikula bat (i.e. *lō*) hiztunak bere harridura adierazteko sistematikoki erabil dezakeena eta ebidentzialtasunetik beregain dabilena; beste hizkuntza batzuetan, ingelesez esaterako, ez da morfosintaktikoki adierazten baina existitzen da, hala ere, kategoria semantiko ezkutu gisa eta intonazioaren bidez eman daiteke.

Geroagoko lan batean, Aikhenvaldek (2012) ontzat eman du miratibitate tipologian onartu beharreko kategoria dela eta, oro har, bost esanahi motarekin lotu du: (i) bat-bateko aurkikuntza edo jabetzea; (ii) harridura; (iii) prestatu gabeko jarrera; (iv) espektatiben kontrako gertaera; (v) informazio berria. Hauetariko bakoitza hiztunaren, solaskidearen zein pertsonaia nagusiaren ikuspegitik defini daiteke. Aikhenvaldek (2012), bestalde, miratibitatea gramatikalki kodetzen duten hizkuntzetan miratibitate-markatzaileen laburpena egiten du. Horien artean, aditz afixuak eta perpaus amaierako partikulak, mota anitzeko predikatu konplexuak (aditz batzuen gramatikalizazioa tarteko), izenordainak, eta beste aipatzen ditu.

DeLanceyren (1997) jatorrizko proposamenaren aldeko froga gehiago Cruschinak (2012) italieraz identifikatutako foku mota gehigarri baten analisitik datoz: italiera ebidentzia-sistematik (ez sintaktiko, morfologiko edo fonologikorik) ez duen hizkuntza bat da. Foku miratiboak informazio harrigarria eta ustekabekoa adierazten du; hau da, oraindik ez da solaskideen ezagutza partekatua eta normalean *out of the blue* testuinguruetan ematen da, diskurtsoan aurrekaririk ez duelarik:

- (3) Non ci posso credere! DUE BOTTIGLIE ci siamo bevuti! [Cruschina 2021: 9]

‘Ezin dut sinetsi! BI BOTILA edan genituen!’

Euskaraz foku mota bat baino gehiago identifikatu izan da eta, gogaikarria eta nekeza ez ezik, ezinezkoa ere litzateke gaiari hemen merezi duen tornua ematea. Beraz, foku mota nagusienak zirriborratzera mugatuko naiz, ondoren foku miratiboa zertan den argitzeko.

Informazio fokua (tarteka *aurkezpen* fokua ere) deritzona funtsean galdera baten erantzuna litzatekeenari esaten zaio eta ezaguna da euskaraz adizki jokatuaren aurre-aurrean ageri dela:

(4) a. Nork irakurri du liburua?

b. [JONEK]_F irakurri du liburua

Foku mota honek ezker-periferiako posizio sintaktiko baterako mugida inplikutzen duela izan da euskararen azterbide sortzaileetan biderik hautatuena; ezker-periferiako gune hori dela Konp-Sintagmatzat (Ortiz de Urbina 1989), dela Foku-Sintagmatzat (Ortiz de Urbina 1999) hartu izan da:

(5) [_{KonpS/FokS} [JONEK]_F [_{Konp/Fok} irakurri du [_{Dnbs} Jonek liburua irakurri du]

Foku mugida honek, gainera, NZ-hitzen mugidaren ezaugarriak erreplikatzeko ditu: A2 ('Aditza Bigarren') fenomeno jarraitzen du, mugida luzea (perpaus batetik besterakoa) eta ziklikoa da, eta irla efektuak pairatzen ditu (Ortiz de Urbina 1989, Artiagoitia 2000, Irurtzun 2016)³.

Informazio fokua ez da *exhaustiboa* eta, hartara, (4b) perpausak ez du baztertzen Jone ez ezik liburuaren irakurle gehiago ere izatea; besterik gabe galderak egiten duen presuposizioari (i.e. 'x-k liburua irakurri du, esadazu x nor den') balio bat ematen dio. Elordietak (2001), bestalde, proposatu du informazio fokua interpretazioa foku azentua *in situ* ezarriz ere lor daitekeela: azentu-ezartze orokor batek (Cinque 1993)⁴ elementu txertatuenera esleituko dio hizkuntza bakoitzean (adarreztatzearen norabide zein den) perpausentzako azentu nagusia; euskaraz, aditzaren ezkerreko osagarria litzateke hori, adarreztatzea eskuinera egiten delako (OA hizkuntza baita):

(6) Jonek alabari LIBURUA irakurri dio

Fokua, hala ere, ez luke *liburua* DS-k zertan izan; foku-azentua biltzen duten proiektioetariko edozein izan litezke: DS osagarria, AS, edo perpaus osoa, segun foku estua edo zabala daukagun. Alegia, (6)-ko prosodia, azentu nagusia osagarriak daramalarik, 'zer irakurri dio Jonek alabari?', nahiz 'zer egin du Jonek?', nahiz 'zer gertatu da?' galderen erantzuna izan liteke. Informazio fokua

³ *Verum* fokua deritzona, perpausaren baieztoko polaritatea markatzen duena, alde batera utzi dut foku moten laburpenetik. Irakurleak kontuan hartu behar du foku mota hau ere Konp edo Foku burura egiten den ezkerreko mugidatzat hartzen dela, A1 ('Aditza lehen') egituratzat alegia. Horietatik ikusi Ortiz de Urbina (1994) eta Elordietak eta Haddican (2016).

⁴ Elordietak (2001: 130) formulazio informal hau darabil Cinqueren perpaus azentu unitarietarako:

(i) Perpausaren azentu nagusia arbolaren alde errekurtsiboaren elementurik txertatuenean ezartzen da.

lortzeko, estrategia biak erabiltzen omen ditu, beraz, euskarak: ezkererako mugidarena eta fokua *in situ*, mugidarik gabe, ezartzekoa⁵.

Foku kontrastiboa (inoiz *identifikazio* fokua ere) deitua, berriz, bada exhaustiboa eta aurretik emandako balio-multzoen arteko bat hautatzen du:

- (7) [jo dezagun aurretik eztabaidan ibili garela ea zeinek, Jone, Amaia edo Maddik, gomendatu digun irakurri berri duen Uxue Alberdiren azken liburua...]

[JONEK]_F irakurri du *Hetero* liburua (ez Amaiak edo Maddik)

Normalean, azterbideak azterbide, euskaraz ontzat eman da foku mota hau ere ezkerreko periferiara egindako mugidaren bidez azaltzen dela.

Zuzenketa fokua, edo zuzenketa foku modu bat behintzat, Elordietak (2001) eta Ortiz de Urbinak (2002) deskribatu dute aditz osteko posizioan:

- (8) Ardoa ekarri diot, ANDONIRI_F (ez Mireni)

Norbaitek esandakoa zuzentzeko helburua duen foku mota hau aditz ostean kokatzen da eta balio kontrastibo handia edukitzen du, kontrastea egiten duen sintagma eman beharrik ez badago ere. Ortiz de Urbinak (2002) erakutsi du, halaber, aditz osteko foku mota hau, seguru asko, ohiko foku-aurreratze mugimenduaren bidez azaldu behar dela, ondoren hondarraren mugida gertatuta; honelako zerbait genuke:

- (9) nik [ANDONIRI]_F ardoa ekarri diot ⇒

[ANDONIRI]_F nik [~~ANDONIRI~~]_F ardoa ekarri diot ⇒

nik ardoa ekarri diot [ANDONIRI]_F ~~nik ardoa ekarri diot~~

Horren froga gisa, aditz aurreko fokuek eta foku hauek dituzten besarkadura berdinak ematen ditu, besteak beste:

- (10) a. [HORREGATIK]_F ez da etorri

b. ez da etorri, [HORREGATIK]_F

c. ??[IKASLE GUZTIEK]_F ez dute azterketa aprobatu

d. ??ez dute azterketa aprobatu, [IKASLE GUZTIEK]_F

Batetik (10a-b) adibideek erakusten duten paralelismoa (i.e. «arrazoi honegatik, ez beste bategatik, etorri da» interpretazioa partekatzea) errazago azaltzen da pentsaturik aditz amaierako ‘horregatik’ foku-posizioan dagoela eta besarkadura daukala perpaus osoaren gainean (Irurtzun 2016). Era berean, ezaguna da hizkuntza batzuetan zenbatzaile unibertsalek nekez hartzen dutela ezeztapenaren gaineko besarkadura; nabari denez, aditz aurreko fokuek eta aditz ostekoek ere bat egiten dute ezaugarri honetan. Nolanahi ere, Ortiz de Urbinak

⁵ Arregik (2003), aldiz, *in situ* estrategia orokortzen du eta ezker-periferiarakoa ukatzen du.

argi uzten du zuzenketa foku honek bai balio kontrastiboa, bai informatiboa ere eduki ahal duela⁶.

Euskarazko foku miratiboari dagokionez, bi aipamen ekarriko ditut hona. Lehenik, Irurtzunek (2016: 259) foku miratiboaren etiketa ipintzen dio tankera honetako perpaus antolaketari:

(11) [JONEK]_F ardoa ekarri du

Adibide hau Etxepare (1998) lanetik dago hartuta eta hiztunak nolabaiteko harridura azalduko luke *Jone* delako ardoa ekarri duena (esaterako, *Jone* ez delako ardozalea edo ez duelako normalean alkoholik edaten); *Jonek* sintagma ere perpaus barruko posizio batean legoke, ez ezker-periferiako batean⁷. Bigarrenik, Fiorinik ere (2020) foku miratiboarekin lotu du ezeztapenaren besarkaduran *ba(da)* adberbioaren laguntzaz egiten den foku mota bat:

(12) Anek ez du bada [miloi bat]_F irabazi loterian!

[= harrigarria da Anek *hainbeste diru* irabazi izana loterian]

Sintaktikoki perpausa negatiboa da, baina interpretatiboki duen balioa da aditz lexikoaren aurretik ageri den ukagaia nabarmentzea, kasu honetan zenbat diru irabazi duen azpimarratzea, berau ustekabekoa edo deigarria delako.

Beraz, zer da foku miratiboa? Hiztunak gertaera baten aurrean bere harridura adieraztea, gertaera horren antolaketan osagairen batek (hiztunaren edota solaskidearen aldetik) espero ez den balioa hartzen duelako.

III. [NZ-HITZA ETA X] EGITURAREN AURREKARIAK

Nik dakidala, de Rijk (1972) izan da euskal gramatikan egitura honetaz ohartu eta arduratu den lehena. Lan horretan, perpaus erlatiboen azterketaren harira, de Rijk aipatzen du haren ustez euskarak ez duela NZ-mugidarik eta, beraz, ez duela Juntadura Egituren Murrizketa (JEM aurrerantzean) obeditzen juntadura egituretan benetako galdetzailak zilegi diren neurrian; zilegi dira, bai, bigarren osagai direnean behintzat:

(13) a. Atzo aita eta zein joan ziren Donostiara?

b. Berrogei eta zenbat urte dituzu?

c. Apaizak txapela eta zer gehiago galdu zituen Baionan? [de Rijk 1972: 142]

⁶ Bada beste foku mota bat, ukagaia edo sasi-fokua deitua, bereziki ezezko perpausetan ageri dena. Honetaz ikus de Rijk (1996), Ortiz de Urbina (2003), eta Etxepare eta Uribe-Etxebarria (2008).

⁷ Etxeparek (1998), berez, foku 'kontrastiboa' deitura darabil, baina Irurtzunek miratiboa hobestekoa dela deritzo.

Jarraian, de Rijkek azpimarratzen du perpausak ez direla gramatikalak baldin eta NZ-hitza lehen juntağaia bada (=14), baina egitura horiek zilegi direla harridura balioarekin eta behar bezalako goranzko intonazioarekin (=15):

(14) a. *Atzo zein eta aita joan ziren Donostiara?

b. *Zenbat eta berrogei urte dituzu?

c. *Apaizak zer eta txapela galdu zituen Baionan?

(15) a. Atzo zein eta *aita* joan zen Donostiara!

b. Zenbat eta *berrogei urte* dituzu!

c. Apaizak zer eta *txapela* galdu zuen Baionan! [de Rijk 1972: 143]

De Rijkek ematen dituen ingelesezko itzulpenei erreparatuta⁸, juntagailuaren ondorengo sintagma ohiz kanpokoia izatea litzateke harriduraren xedea; horrez gain, de Rijkek argudiatzen du (15)-eko adibideetan ez dagoela egiazko izen-sintagma koordinaturik, besteak beste, komunztadura (15a) adibidean singularrean egiten delako, (13a)-n ez bezala, eta proposatzen du galde perpaus baten eta erantzunaren arteko juntadura egituraren sinpletzetik sortua dela egitura:

(16) [Atzo nor joan zen Donostiara?] [eta] [atzo ama joan zen Donostiara] ⇒

[Atzo nor ~~joan zen Donostiara?~~] eta [~~atzo~~ ama joan zen Donostiara]

Hiztunak bere buruari egingo lioke galdera eta hiztunak berak erantzungo luke; egitura paraleloak direnez, perpaus bietako elementu komunak ezabatu egin litezke. Horraino egitura hauen lehen deskribapena.

Gaur egun, euskalaritzan erabateko adostasuna da NZ-mugida edo aurreratzea badela (Ortiz de Urbina 1989 lanaz gero gutxienez) eta, normalean, (13) bezalako egiturak ez dira hartzen Rossen (1969) JEM euskaraz betetzen ez delako argudiotzat, baizik eta [X eta NZ-hitza] egituran NZ-hitza *NZ-tasunak pied-piping* edo sintagma-garraioa egin dezakeelako argudiotzat; izan ere, de Rijkek berak (1972, 2008) espekulatzen du halako egiturek balio dutela galdetzailearen eta adizki jokatuaren ondokotasun baldintza betetzeko, ez direla nahitaez oihartzun galdera gisa hartu behar. JEM euskaraz betetzen delako froga, paradoxikoki, de Rijkek berak eman zuen aurreko (1969) lan batean:

(17) *Zer gehiago galdu zituen aitak [txapela eta ~~zer~~ gehiago] Baionan? [de Rijk 1969: 326]

Hots, benetako galdetzaile bat ezin da juntadura egituratik atera edo aldendu.

Gure ikergaira itzuliz, de Rijk (2008: 845-7) lanean berriro errepikatzen dira lehenagoko lanean emandako ohar berdintsuak, adibide bakan batzuk gehituta.

⁸ Hauexek dira hurrenez hurren: «Yesterday, Father, of all people, went to San Sebastian!», «How absolutely remarkable that you are 40 years old», «The priest lost his beret, of all things, in Bayonne».

Ekarpen modura, (16)-ko analisiaren aldeko frogatzat perpaus biren juntadura erakusten duten zenbait adibide ematen ditu de Rijkek:

(18) a. Nor harritu eta erregea harritu (Barbier, *Lég*, 132)

b. Eta hori noiz gertatuko eta orain gertatzen (*MIEG IX*, 98)

De Rijken lanak alde batera, egitura honen berri laburra honako lekuetan ere aurkitu dut: Euskaltzaindia (1994), *A grammar of Basque* (2003), eta Amundarain (2021). Lehenak paragrafo bakarrera mugatzen du aipamena: «Lehen juntagaitzat galde-hitza daramaten *nor eta hi*, *non eta han*... bezalakoak ere enfasi, indar berezikoak dira», eta Erkiagaren eta Laphitzen adibide bana dakar⁹. Bigarrenean, Traskek (2003: 154) bide batez bezala aipatzen du harridurazko galderetan erabiltzen direla *nor eta Jone heldu zen* bezalako egiturak, ezaugarrietan sartu gabe; liburu berean, Amundarainek (2003: 854) egitura aipatu soilik egiten du *galdetzaileen* juntaduraz aritzean. Geroagoko lan batean, Amundarainek berak (2021), bestalde, de Rijkek (2008) esandakoaren laburpena egiten du eta bi datu gaineratzen ditu: egiturak nahiz harridura nahiz gaitzespena adieraz ditzakeela eta, bigarrenik, esapide honen lekukotasunak Hegoaldeko XX. mendeko testuetakoak direla.

Laburbilduz, [NZ-hitza eta X] sintagma harridura (edo agian gaitzespen) balioarekin adierazpen perpausetan erabiltzen den egitura modernoa genuke, oso arreta urria erakarri duena, eta de Rijken ustez *galdera* + *erantzuna* perpaus paraleloen jolas erretorikoa iturburu izango lukeena.

IV. EUSKARAZKO EGITURA HONEN EZAUGARRIAK

Aurrekariak berrikusi ondoren, gatozen orain egituraren ezaugarriak xehekiago aztertzea. Ezaugarriok honela laburbildu daitezke: 1. A2 eskema bete dezake, baina ez du zertan; 2. [NZ-hitza eta X] egitura ez da galdera baten erantzuna izaten; 3. komunztadurari dagokionez, eskuineko juntaiaak erabakitzen du egitura osoaren jokabidea, ohiz kanpoko juntadura dela erakutsiz; 4. emankorra da NZ-hitza guztiekin; 5. ezeztapenaren besarkaduran agertzeko ezintasuna; eta 6. interpretatiboki, egiturak foku miratiboaren irakurketa hartzen du.

1. Egiturak A2 fenomenoak bai bete dezake, hau da, adizki jokatuaren aurreko posizioan ager daiteke (19), baina ez du zertan (20):

⁹ Laphitzen adibidea gaizki interpretatua dela uste dut. Hona hemen:

(i) Denbora guzia obra onetan zeraman, eriak ikhusiz, pobreak sokhorrituz, haurrak argituz, gazteria bere xede onetan borthiztuz, noiz eta aphiirilaren hemeretziari, 1527an hiriko muthilak lothu baitzitzaizkon, ziotelarik: «Zure preso hartzeko manua dugu.» (F. Laphitz, *Bi Saindu Eskualdunen Bizia*, 1867, 87)

Laphitzek darabilen *noiz eta* hau (amaierako aditzeko *bait*- konplementatzailearekin batera) denborazko menderagailutzat hartu behar da: *noiz eta* ...lothu *baitzitzaizkion* = lothu *zitzaizki-onean*. Laphitzena ez da, hartara, foku miratiboaren adibidea. Zehaztapen hau garrantzitsua da, Iparraldean egitura hau ez baita ezaguna.

(19) Nork eta JONEK deitu zidan atzo telefonoz

(20) Atzo MIREN ikusi nuen, non eta fakultatean

Badirudi, beraz, egitura honek bat egin dezakeela ohiko foku enfatiko edo kontrastiboaren kokapenarekin, baina, NZ-hitzarekin halako unitate prosodiko beregaina osatzen duen neurrian, bigarren foku antzeko bat ere osa dezakeela. Han eta hemen jaso ditudan adibideek¹⁰ aukera biok (aditzaren aurreko kokapena zein ez) badirela berresten dute:

(21) a. Badakit ondo zer esango duzun, Kitty: «Baina, Anne, *nork eta zuk* esaten dituzu hitz horiek?» (A. Frank / J. Zabaleta, *Anne Franken egunkaria*, 2004, 182)

b. Sinestezina: nik hondartzan galdutako lepoko bat, *nork eta berak topatu*, zelan eta behatz artean endredatu zitzaiolako. (M. A. Meabe, *Hezurren erretura*, 2019, 123)

(22) a. Bidasoko zeharkaldiko trantzean abandonatu egingo hinduela *nork eta hire adiskide onenak*. (E. Aizpurua, *Gaueko azken expressoa*, 2023, 26)

b. Eta galdera da: gazteen pankarta zapaldu zutenek —«Martxoak 3. Oroimenetik garaipenera. Zuen borroka gure eredu» jartzen zuen pankarta, hain zuzen ere—, *non eta Gasteizen*, Zaramagan, masakrea gertatu zen lekutik oso hurbil, *noiz eta hilketaren urteurrenaren bezperan*, zer egin zuten? (B. Atxaga, *Kilker bat autopistan*, 2020, 95)

Lehen adibide parean, *nork eta zuk* eta *nork eta berak* aditzaren aurre-aurrean ageri dira eta ohiko foku posizioan daudela esan genezake, subjektua nabarmendu nahi da. Bigarren adibide parean, aitzitik, *nork eta hire adiskide onenak* eta *non eta Gasteizen* sintagma ez daude posizio sintaktiko horretan: lehenean aditzaren fokalizazioa suertatu da *egin* aditz betegarriaren bitartez eta [NZ-hitza eta X] perpausaren amaieran ageri da; bigarrenean topiko antzekotzat har liteke *non eta...* sintagma, izan ere, *zer* galdetzailea ageri da aditzaren aurrean eta, beraz, berau da fokua.

Ezaugarri honekin amaitzeko, gehitu behar da [NZ-hitza eta X] egiturak ezker-periferiara aurreratutako fokua indargarri gisa ere funtziona dezakeela:

(23) JONEK deitu zidan atzo telefonoz, nork eta Jonek

Lehenbiziko JONEK DS dugu aditzaren aurreko ohiko fokua (hots: «JONE, ez beste inor, da atzo telefonoz deitu zidana»), eta ondorengo [nork eta Jonek] egiturak beste ñabardura bat gehitu du: Jone ez da aldagairako (i.e. deitzaile

¹⁰ Hona dakartzadan XXI. mendeko adibide guztiak *Ereduzko Prosa Dinamikoa* corpusetik aterak dira eta euskaraz idatzitakoak zein itzulitakoak dituzte oinarri. Adibideen aipuan, itzul-tzailea ere aipatzen dut, EPD-k berak egin bezala. Gainerakoan, jatorrizko lanaren erreferentzia sinplikatu dut *autorea-izenburua-urtea-orrialdea* soilik jasota. XIX eta XX. mendeetako adibi-deak, oster, Euskal Klasikoen Corpusetik atzituak dira.

izateko) balio posibleen artean hiztunak inondik inora espero duen balioa, harrigarria zaio¹¹.

2. Galdera baten erantzuna izateko zailtasuna. Ezaugarri hau nabarmena da edozein galdetzaile erabiltzen dugularik:

(24) galdera: nor etorriko da gaur afaltzera?

erantzuna: ?? nor eta Jone (etorriko da)

(25) galdera: nora joan nahi duzue oporretan aurten?

erantzuna: ?? nora eta Italiara (joan nahi dugu)

Modu bakarra erantzuna moldatzeko aurretik *ba(da)* erabiltzea litzateke: ‘ba, nor eta Jone; ba, nora eta Italiara’. Horrela, hiztunak galdera-egilea aintzat hartu eta argi uzten dio galdera-egileari erantzuna berarentzat erabat bitxia eta harrigarria izan behar dela (erantzuten duenak bai baitaki zein den erantzuna). Beste era batera esanda, [NZ-hitza eta X] egitura informazio fokua izan liteke, baina ez du hori aukerarik naturalena eta *ba(da)* partikularen beharra du horretarako. Horren arrazoia geroago azalduko dut, 5.2. azpiatalean.

3. Komunztadura denaz bezainbatean, eskuineko X juntagaiak baldintzatzen du [NZ-hitza eta X] osagaiaren portaera, juntagaia determinatzaile-sintagma denean. Datu hau de Rijkek berak (1972) nabarmendutakoa da:

(26) a. Josu eta Miren etorri ziren

b. *Miren eta nor etorri zen? vs Miren eta nor etorri ziren?

c. nor eta Miren etorri zen! vs *nor eta Miren etorri ziren!

Begi bistan dago DS singular bi koordinatzean ohikoena pluraleko komunztadura egitea dela; ikergai dudana egituraren, aitzitik, ez da hori inoiz gertatzen (cf. 26c) lehenagoko (21a) edo (22a) adibideetan sumatzen dugun bezala. Egitura alternatibo pluralek ez dute, gainera, funtzionatzen:

(27) a. * baina, Anne, *nork eta zuk* esaten dituzue hitz horiek? [cf. 21a]

b. * abandonatu egingo hindutela *nork eta hire adiskide onenak* [cf. 22a]

Beraz, de Rijkek (1972) iradokitzen duen moduan, egitura hau ezin da DS arruntaren koordinatzeatzat hartu. Besterik da, noski, ezaugarri hau perpausen ezkutuko koordinazioaren argudiotzat har daitekeen. Gero, bosgarren atalean bueltatuko gara honetara.

4. Egitura emankorra da NZ-hitza guztiekin. Horren erakusgarri, NZ-hitza bakoitzaren adibide bat edo bi emango ditut jarraian.

¹¹ Literatura idatzian ere aurkitu dut antzera interpretatu daitekeen adibideren bat:

(i) Maritxua bazina, zuk uste *Bolivarrek* utziko lizukeela berari aginduak ematen, *nork eta Bolivarrek*, hurrengo bizitzan otso bat izango den horrek? (J. M. Coetzee / A. Gorrotxategi, *Jesusen eskola-egunak*, 2017, 208)

(28) *nor eta X*

Nor-eta ni irakurketa eta idazketa irakasten aritzea zeharo irrigarria iruditzen zitzaien nire amari. (A. Shakur / D. Sarriugarte, Autobiografia bat, 2022, 261)

(29) *zerk eta X-k*¹²

Haur- eta gazte-literaturara zaletu zinen, zure zorionerako. *Zerk-eta haietako liburu batek atera zintuen depresiotik: Michael Ende-ren Momo nobelak. (U. Villena, Hauts haietatik, 2016, 240)*

(30) *zer eta X*

Urteak dira hara igo ez dela, haur zenetik kasik, esango luke, eta marka da gero *zer eta egokiera horretan bueltatu beharra. (B. Sarasola, Deklaratzekorik ez, 2019, 277)*

(31) *norentzat eta X-rentzat*

Sukaldean aritzen eta etxea txukuntzen utzi nauzue, *norentzat eta Ninok bezperan traizioa egin edo biharamunean traizioa egingen zidanarentzat. (E. Ferrante / F. Rey, Ume galduaren historia, 2016, 348)*

(32) *nori eta X-ri*

Euliakurruntzen direneko keinu igualtsuarekin aldendu du pentsamendu izatera ere iritsi ez den sententzio gordina, jada ez daukalako hain argi ere biluztasuna eta libertatea nola azaldu behar dizkion Maudeyri, *nori eta berak ez bezala ezagutzen dituenari. (O. Amantegi, Cayo Hueso, 2023, 59)*

(33) *zeri eta X-ri*

Hausnarrean geratu nintzen hitzen esanahiari buruz, *zeri eta Lampedusaren hilobiari begira. (L. Egia, Txakur ingelesak, 2011, 104)*

(34) *norekin eta X-rekin*

Norekin eta soldadu batekin egin nahi duk apustua. (K. Zuazo, Neure buruaren alde, 2012, 25)

(35) *non, nora, nondik eta X-n, X-ra, X-tik*

a. Duela lau urte, ordea, Fukushimakoa gertatu zen, *non eta Japonian, eta Napoleon —enpresa nuklearren lobbya eta haien zerbitzuan ari direnak— armarik zaharrena erabiltzen hasi zen: gezurra. (B. Atxaga, Kilker bat autopistan, 2020, 85)*

b. Loa ere galarazi zizun eguna iritsi zen azkenean: aitarekin joanen zinen Athletic ikustera, *nora eta San Mamesera bertara. (G. Arrula, Lurraz beste, 2023, 120)*

¹² *nork eta X-k* tankerako egiturak (21) eta (22) adibideetan azaldu ditugu.

c. Oraino aldi berean mira eta hira pizten zizkigun hango bizilagunen atxikimenduak Erromari buruz. Galard bezala, gure arteko anitz, *nondik eta superstizioa erauzten ari ziren herrialdeetatik* joanak ziren Parisera. (A. Epaltza, *Izan bainitzen Nafarroako errege*, 2009, 77)

(36) *nola eta X*

Massachusettsseko Badiako Kolonian, gutxienez bi emakumek, hitzarmenaren teologiaren mende bizi beharraren presiopean asaldaturik —zeren teologia hark gizonei eskaintzen baitzien, ezen ez emakumeei, Jainkoarekin zuzeneko harremana izatea eta haren borondatearen berri izatea—, kondenazioaren segurtasuna hautatu zuten beren larriduraren eta babesgabetasunaren gainetik, *nola-eta infantizidioa eginez edo egiten saiatuz*. (A. Rich / M. Berasategi, *Emakumeengandik* jaioak, 2020, 401)

(37) *zertaz eta X-z*

Ezin diat lanik egin, ito egiten nauk, eta hi hona etorri eta *zertaz eta txartel ergel* batez hitz egiten hasi niri? (P. Claudel / I. Diez de Ultzurrun, *Brodecken txostena*, 2011, 261)

(38) *zergatik eta X-gatik*

Ez nuen ulertzen. Estatubatuarrak gerran nahastu ziren *zergatik-eta printze bat hil zutelako*, non eta Austrian? (A. Shakur / D. Sarriugarte, *Autobiografia bat*, 2022, 78)

(39) *noren(a) eta X-ren(a)*

Konbentzituta dago gazte hori ere aurrekoak bezalakoa izango dela: astoa. Zerbait jakingo du zerbaiti buruz, baina ez du ipuinaz hitz egiten jakingo, azalean geratuko da, itxurak egin nahi izango ditu, *noren eta hiltzen ari den Soro Barturenen* aurrean. (U. Elorriaga, *Iturria*, 2019, 20)

(40) *nongo eta X-ko*

Zergatik zituen Frantziako Luis XVI.ak, bere ondaretik ordainduz, baleontzi batzuk apailatu Dunkerketik, eta adeitsu gonbidatu hiri hartara hogeita bat edo bi familia, *nongo eta Nantucketeko* gure uhartekoak berekoak? (H. Melville / J. Garzia, *Moby Dick*, 2023, 123)

Adibideon argitara, ezin garbiago geratzen da egitura hau emankorra dela euskaraz NZ-hitza guztiekin. Esan beharra dago, hala ere, idatzizko erabilera behintzat, hainbat idazlek joera daukatela [zer eta X+kasu marka/postposizioa] komodin gisa erabiltzeko, lehen juntagai den NZ-hitza biluzik emanez eta dagokion kasu marka edo postposizioa bigarren juntagaian soilik erabiliz. Adibide gutxi batzuek argiago utziko ahal dute ezaugarri hau:

(41) [*zer eta X+kasu marka/postposizioa*]

- a. –Zu agurtzera etorri naiz –esan zuen. Arraroa egin zitzaidan Yaletik harako bide luzea egin izana, baita auto-stopean ere, *zer eta agurtzeko*. (S. Plath / G. Arrula, *Beirazko kanpaia*, 2022, 82)
- b. Baina atzera egitea ezinbestekoa da. 2007ko apirilak 19, osteguna. Kasik seguru osteguna zela, Bilbotik iritsi berria nintzen, *zer eta* lagun talde nahikoa heterodoxo batek konpartitzen genuen lokalera nindoalako. (Kattalin Miner, *Moio*, Elkar, 2019, 11)
- c. Eta hori gutxi balitz bezala, hi bezalako munduko hiritar usteko etxekalteen irriak aditu behar, gainera, *zer eta* geure lur txikituari eutsi nahi diogulako, ezertarako balio ez omen duen hizkuntza batean mintzo garelako. (E. Aizpurua, *Gaueko azken expressoa*, 2023, 154)

Lehen adibidean, argia dirudi Garazi Arrulak *zer* NZ-hitz biluzia erabili duela *zertarako*-ren ordeztu, seguru asko *–(ra)ko* destinatibo morfema ez errepikatzearen. Ohartu gaitezen [NZ-hitz eta X] egitura lehenagoko zentzu berdinean erabili dela; hots, agurtu beste helbururik ez duen bide luzea egitea harrigarria da, espero ez den zerbait. Bigarren adibidean, aldiz, interpretatu beharra dago *zer* horrek zein NZ-hitz ordezkatzeko duen, edo, beste era batera esanda, zeren gainean ipini nahi duen Kattalin Miner idazleak arreta: iduri du lokalera joatean ipini nahi duela, ‘nora eta... konpartitzen genuen lokalera’ esan nahi izan balu bezala. Azkenik, (41c) adibideko ‘zer’ horrek *nori* ordezkatzeko du argian, baina baliteke *zergatik* ere ordezkatzeko.

Ikergai dugun egitura hau, hartara, NZ-hitz guztietara hedatzen da; besterik da Euskal Herri osoan barrena erabiltzen denentz. Aurkitu ditudan lekukotasunetarik bat bera ere ez da Iparraldekoa eta, bertako zenbait hiztunek berretsi didatenaren arabera, arrotza da egitura nafar-lapurteraz eta zubereraz¹³.

5. Ezeztapenaren besarkaduran agertzeko ezintasuna. Euskaraz, jakina da ohiko foku posizioak ezeztapenaren gaineko besarkadura eduki dezakeela, baina badela perpaus barruko beste foku posizio bat ezeztapenaren besarkaduraren azpian geratzen dena (Ortiz de Urbina 2003):

- (42) a. IKASLE GUZTIEK ez dute liburua irakurri (*gutxi batzuek baino)
- b. Ez dute liburua *ikasle guztiek* irakurri (gutxi batzuek baino)

Lehen perpausuan, fokuak du ezeztapenaren gaineko besarkadura (eta halakoxea da interpretazioa: $\forall$ ikasle $>$ $\neg$: ikasle guztiei buruz esan liteke ez dutela liburua irakurri; kontrastea egiten duen sintagma, hartara, ez du zentzurik). Bigarrenetan, aitzitik, ezeztapenak du besarkadura zenbatzaile unibertsalaren gaintik ($\neg > \forall$ ikasle; ez da egia ikasle guztiek irakurri dutenik liburua) eta kontrastea egiten duen sintagma zentzuzkoa da. Bada, gure [NZ-hitza eta X] egitura ez da zilegi ezeztapenaren besarkaduraren azpian:

¹³ Hala esan didate Maitena Duhalde lapurtarrak, Argia Olçomendy baxenafartarrak eta Maider Bedaxagar zuberotarrak (k. p.).

(43) *ez du liburua nork eta Jonek irakurri

Aikhenvaldek (2012) azpimarratu duenez, egitura miratiboen ezaugarria da, hain zuzen, halako egitura gramatikalak ezin direla ezeztapenaren besarkaduraren azpian azaleratu.

6. Interpretazioari dagokionez, egiturak foku miratiboaren irakurketa hartzen du. Fábregasek (2020: 195) azaldu duenez, foku miratiboan hiztunak presuposizioaren egia balioa asetzen duen aukera, diren guztiak gogoan hartuta, harrigarria eta esperogabea dela adierazten du:

(44) a. Se vino al parque CON JUAN, nada menos. [Fábregas 2016: 31]

b. ¡Una bolsa de patatas se ha tomado para cenar! [Fábregas 2020: 195]

Alegia, testuinguruan dauden aukeren artean patata poltsarenak ez dirudi aukerarik arruntena hiztunaren buruan eta balioaren bitxitasuna azpimarratzen du. Euskarazko [NZ-hitza eta X] egiturotan berdin gertatzen dela dirudi¹⁴. Har dezagun de Rijken jatorrizko adibide pareta moldatuta:

(45) a. Atzo nor eta *ama* joan zen Donostiara!

b. Zenbat eta *berrogei urte* dituzu!

Lehenak, hain zuzen, adierazten du ‘atzo x Donostiara joan zen’ perpausa egia bihurtzen duen balioa (i.e. x = ama) erabat ustekabekoa eta ohiz kanpokoa dela dauden aukera guztien artean. Bigarrenean, hiztunak solaskideari adierazten diona da berrogei urte edukitzea ez dela ‘x urte dituzu’ esaldiak duen hutsunea betetzeko inork (edo hiztunak behintzat) esperoko lukeen balioa edo hautabidea. NZ-hitza duen balioaren gaineko harridura hiztunarena berarena izan daiteke, baina baita hiztunak solaskidearengandik aurreikusten duena ere. Esaterako:

(46) Atzo Bilboko Zazpi Kaleetan nor eta Shakira ikusi nuen!

Adibide honetan, hiztunak badaki nor ikusi zuen aurreko egunean, baina solaskideari adierazten dio espero duela berak (solaskideak) harrigarria topatzea Bilbon Shakira ikustea, ez baita Bilboko Zazpi Kaleetan baldintza normaletan ikusiko genukeen norbait (ez delako Bilbon bizi, ez delako jende artean ibiltzen, edo dena delako arrazoiagatik).

V. ANALISIA

Behin egituraren hedadura eta ezaugarri morfosintaktikoak eta interpretatiboak zirriboratu ostean, analisi bat proposatu nahiko nuke. Horretarako, baina, aurretik de Rijkék proposatuko azterbidea zergatik

¹⁴ Izan ere, euskal itzultzaile batek, erraz asko, honelaxe itzul litzake Fábregasen adibide biak:

(i) a. *Norekin eta Jonekin* etorri zen parkera
b. *Zer eta patata poltsa bat* hartzea ere afaltzeko...!

iruditzen zaidan oso ezbaikoa azalduko dut. Berau eztabaidatu ondoren, neure proposamena garatuko dut 5.2. atalean; 5.3. atalean, bestalde, [NZ-hitza eta X] egituraren antzekoa dirudien perpaus juntaduraren inguruko ohar pare bat egingo dut.

5.1. Zergatik ezin den egitura hau perpaus biren juntadura hutsetik sortu

Aurreratu dugun moduan, de Rijkke proposatzen du egitura honen oinarrian galdera erretoriko baten eta haren erantzunaren arteko jolas bat dagoela eta, behin egitura paraleloa duten perpausak koordinatuz gero, antzeko elementuak ezabatzen direla:

- (47) Atzo nor joan zen Donostiara?, atzo ama joan zen Donostiara ⇒
atzo nor ~~joan zen Donostiara?~~, *eta atzo* ama joan zen Donostiara

Proposamen honek bizpahiru hutsune dauzka, nire ustez. Bateko, ezaguna denez (Euskaltzaindia 1994), normalean eite diferenteko perpausak ez dira egokiak izaten juntaduran; horrek badauka salbuespenen bat edo beste, baina, hain zuzen ere, galde perpausak eta adierazpenekoak juntatzeak ez ei dakar emaitza onik¹⁵:

- (48) a. *Non bizi da? eta esaiok etortzeko
b. *Hori al da? eta esango diot [Euskaltzaindia 1994: 27]

Ildo honetatik, deigarria da konturatzeari [nor eta ama] egituraren iturburua litzatekeen perpaus osoa ez dela gramatikala, de Rijkke azterbidea zuzena izatera espero daitekeenaren kontra:

- (49) a. *Atzo nor joan zen Donostiara? eta atzo ama joan zen Donostiara
b. *norekin egin nahi dun apustua? eta soldadu batekin egin nahi dun apustua

Bigarrenez, eta bide beretik, perpaus juntadura bat gure egituraren iturburua balitz, orduan beste era bateko ezabaketa batzuk ere erabat arruntak izan beharko lirateke; esaterako, bigarren perpausaren berdinak diren elementuen ezabaketak ere ondo funtzionatu beharko luke. Ez dirudi halakorik gertatzen denik:

- (50) a. * atzo nor joan zen Donostiara? eta ama
b. * norekin egin nahi dun apustua? eta soldadu batekin [cf. 34]

Hirugarrenez, [galdera perpausa + adierazpen perpausa] juntadura egituratik abiatuta, nekez azaldu liteke [NZ-hitza eta X] juntadura egitura zelan den

¹⁵ Ikus honetaz Progovac (2003), batez ere haren *Juntagailu Markatzearen Ekonomia* hatsarrea. Funtsean, ekonomia hatsarre honek beharrezkoak ez diren juntagailuen erabilera debekatzen du, baldin eta juntagaiak ondo ezkontzen edo elkartzen badira juntagailurik gabe (cf. 'Non bizi da Miren?, esaion etortzeko').

posible bai-ez motako edo polaritatezko galdera batean, eta jada egiaztatu dugu hori erabat arrunta dela:

- (51) a. Badakit ondo zer esango duzun, Kitty: «Baina, Anne, *nork eta zuk* esaten dituzu hitz horiek?» (A. Frank / J. Zabaleta, *Anne Franken egunkaria*, 2004, 182) [= arestiko 21a adibide bera]
 b. *Nork eta hik* esplikatu behar didak niri nola jokatu behar dudan? (A. Malraux / K. Zabala, *Esperantza*, 2008, 357)

Egia da galderok ez direla benetako bai-ez erantzuna eskatzen dutenak, erretorikoak baino; baina, hala ere, zaila da pentsatzea galdera partziala eta adierazpena elkarturik sorturikoak direnik.

Perpaua biren juntaduratik sortu ezean, nola azaldu edo nola irakurri juntadura egitura? Gai honi hurrengo azpiatalean ekingo diot.

5.2. Juntadura egitura berezia

Nire hipotesia oso ximplea da: [NZ-hitza eta X] egituran lehen hitzak ez du egiazko galdera bat ezkututzen, NZ-hitzen euskaraz berez duten izenordain zehaztugabearen balioa baino. Alegia, [nor eta ama] sintagmaren irakurketa honelako zerbait litzateke:

- (52) a. atzo nor eta ama joan zen Donostiara! [=45a]
 b. $\exists x = \text{biziduna} \ \& \ x = \text{ama}$ [& atzo x Donostiara joan]

Beste era batera, “&” juntadurak besterik gabe balio du lehen juntagaian baieztatzen den elementu zehaztugabea identifikatzeko. Jakina, interpretazioak ustekabeko balioaren ñabardura ere inkorporatu behar luke¹⁶. Beraz:

- (53) $\exists x = \text{biziduna}$, ohiko balioetatik kanpokoa, & $x = \text{ama}$ [& atzo x Donostiara joan zen]

Aitortu behar dut *nor* eta antzeko NZ-hitzen duten balio existentziala urria dela egungo gramatikaren arabera eta gutxi nabarmendu ohi dela; Euskaltzaindiak (1991), esaterako, hauek aipatzen ditu:

- (54) a. zu bazara *nor* hori esateko...

¹⁶ Berrikusle anonimoetako batek iradokitzen du gaztelaniz halako egiturak ezinezkoak direla (cf. **quien y Pedro insultó al jefe*) eta, baliokide den egitura bat sortzeko, pausa bat (= #) egingo litzatekeela harridura-fokuaren aurretik: *una persona, # ¡PEDRO!, insultó al jefe*); pausa hori euskarazko juntagailuaren kidea omen litzateke. Nolanahi ere, esan behar dut, Bizkaiko euskaldunen artean behintzat, gaztelaniz hitz egitean erabat ohikoak direla berrikusleak okertzat emandako adibidea bezalakoak; euskaratik gaztelaniara egindako transferentzia baten aurrean gaudela dirudi. Fonologiari dagokionez, [NZ-hitza eta X] egituran *eta* juntagailuak aurreko NZ-hitza-ekin bat eginda ahoskatzen da eta gero dator X sintagma, gorazko intonazioarekin. Joera honen erakusgarri da egungo autore batzuek gidoia erabiltzen dutela NZ-hitzen eta juntagailuaren bat egitea adierazteko (cf. 28, 29, 36).

b. Jendea, *nor* zaldiz, *nor* oinez, etorri zen [Euskaltzaindia 1991: 49]

c. *Nor* bere etxera joan dadila orain! [ibidem: 59]

Lehen kasuan, *nor* predikatua da ('duina izan'-en antzekoa omen); bigarrenean, berriz, argi dago balio existentziala: *batzuk... besteak...* egituraren parekoa da *nor* hau; hirugarrenaz, beren-beregi esaten zaigu *nor* delakoa *norbait* edo *bakoitza*-ren baliokide dela. Euskaltzaindia (1991) lanetik kanpo, Salaburuk (2021), esaterako, erlatiboak aipatzen ditu, eta beste lan batzuetan (OEH, Euskaltzaindia 1994, Rebuschi 2001, de Rijk 2008) korrelatiboak ere ageri dira:

(55) a. *Nor* ere ikusi baitu hori, zitalez blaituriko mihiz Fortunaren aurka duke traizio-epaia emango (Juan Garzia *apud* Salaburu 2021: 443)

b. *Nork* ere huts eginen baitu, (eta) (hura) gaztigatua izanen da (Rebuschi 2001: 2)

Ez da nire asmoa hauek guztiak banan-banan zehatz-mehatz aztertzea; nire helburuetarako nahiko da esatea NZ-hitzen, galderetatik kanpo, balio existentziala daukatela, edo eduki dezaketela, euskaraz oro har. Interesgarria da, ideia honen argitara, arestiko lan batean Boškovićek (2023) euskara izenordain zehaztugabeen sistema garatu eta indartsua duten hizkuntzen artean kokatzen duela; hizkuntza horien ezaugarria litzateke izenordain zehaztugabe arruntek, benetako galdetzaile gisa funtzionatzeko, zilegiztatze berezia behar dutela, ezkerreko periferian kokatzen den NZ edo foku tasun batek erakarri behar dituela alegia. Ideia hori onartzen badugu, ez da harritzekoa NZ-hitzen hemen galdetzaile baliorik ez edukitzea, NZ-tasun horren, hots galdera izaeraren, aztarnarik ez baitago.

Aurretik esan dugun moduan, [NZ-hitza eta X] egiturak ez du beti aditzaren aurreko foku posizioa betetzen; izan ere, (22, 28, 31, 32) eta abarrak bezalako adibideetan, NZ-hitzak gehi juntagailuak seinalatzen duten X sintagmaren aurrean hiztunak duen harridura, edo ustekabea, adierazten du. Juntadura egiturak talde foniko independentea osatzen duenez, halako kasuetan ere fokalizazio antzeko egitura bat dugula esan liteke; nolanahi ere, [NZ-hitza eta X] DeLanceyk (1997, 2001) eta Aikhenvaldek (2012) aipatutako miratibitatea adierazteko modu argia da.

Azkenik, (25) eta (26) adibideetan sumatu dugun arazoa, foku miratiboaren egitura honek informazio fokua izateko duen zailtasuna alegia, kontu pragmatikoa izan liteke. Foku miratiboak eskatzen du hiztunak proposizioa egia bihurtzen duten alternatiben analisia egin eta, horrela, bere aukera esperogabea dela markatzea, eta, normalean, informazio fokuan galdera-egileak informazio eske irekia egiten du, alternatibak aintzatetsi gabe. Alde horretatik, hiztun batzuek aipatzen duten *ba(da)* partikularen erabilerak galdera-egilea prestatzeko funtzioa betetzen du agian¹⁷; galdera ez dela berak uste duen bezain erraza eta ñabardura gehiago dituela esateko modu bat litzateke.

¹⁷ Ikus Lizardi (2024: 220) perpaus hasierako *ba(da)* partikulaz. Haren ustez, partikulak hiztunaren aldetik aurreko testuinguruaren onarpena markatzen du eta solaskidea elkarriketaren

5.3. Ohar bat antzekoak diruditen perpaus juntatuez

Arestiko 5.1. atalean aditzera eman dut [NZ-hitza eta X] egitura miratiboa ezin dela azaldu perpaus juntadura batetik abiatuta, baina begi bistakoa da badirela perpaus juntatu batzuk balio miratiboa eduki dezaketenak (i.e. arestiko 18. adibide parean, hemen 56 gisa emana):

(56) a. Nor harritu eta erregea harritu (Barbier, *Lég*, 132)

b. Eta hori noiz gertatuko eta orain gertatzen (MIEG IX, 98)

Nire uste apalean kontu biok ez daude kontraesanean; hots, oro har [NZ-hitza eta X] egiturak badabiltza euskaraz, eta ez dugu zertan pentsatu perpaus arrunt biren juntaduratik sortuak direnik; izan ere, galdera erretorikoaren eta erantzunaren jolasak, ikusi dugunez, ez ditu beti emaitza onak sortzen, de Rijk zuzen ibiliz gero espero behar dugun moduan. Bestetik, perpaus juntatuak dituzten egiturek ez dute zertan interpretazio miratiboa eduki. Esaterako, erreparatu honako adibide bikoteari:

(57) a. Datorren hilean irakurle klubean zer eta *Pleibak* irakurriko dugu

b. Datorren hilean irakurle klubean zer irakurriko eta azkenean *Pleibak* irakurriko (dugu)

Batetik, (57a) adibideak berezkoa du *Pleibak* liburuaren aukera bitxia edo ohiz kanpoko delako ñabardura. Ordea, (57b)-ko perpausak ez du zertan adierazi *Pleibak* liburuaren aukera ohiz kanpoko edo harritzeko moduko balioa denik; besterik gabe, adierazten du aurretiaz eztabaida bat izan dela eta eztabaidaren emaitza *Pleibak* liburua hautatzea izan dela¹⁸. Areago, (57b) adibidea osorik garatuz gero, honela eman dezakegu:

(58) Datorren astean irakurle klubean zein liburu irakurriko *dugun* eta azkenean *Pleibak* irakurriko (dugu)

Hots, lehen juntagaia galde perpausa da, bai, baina ez da hiztunak bere buruari egindakoa, eztabaida baten nolabaiteko kontakizuna baino (eta, beraz, zehar-galdera erabili da); bigarren juntagaiak galderaren erantzuna biltzen du, baina, inportantea dena, perpaus osoen juntadura egiturak ez dauka, ez behintzat nahitaez, [NZ-hitza eta X] egiturak duen irakurketa miratiboa. Alegia, (57b) eta (58) adibideetan *Pleibak* liburuaren hautua ez da nahitaez harrigarria, lehen juntagaiak planteatu duen galdera neutroaren erantzuna baino. Labur-zurrean, [NZ-hitza eta X] egitura soila eta hari datxekion berezko interpretazio miratiboa ez datoz perpaus biren juntaduratik.

jarraipenerako prestatzen du.

¹⁸ Jakina, testuinguruaren edo hiztunaren entonazioaren arabera, ñabardura miratibo hori eduki dezake (58) adibidea, baina ez da perpaus bien juntadurak berez duen ñabardura.

VI. EGITURAREN SORRERA

[NZ-hitza eta X] egituraren sorreraz zerbait segurua esatea nire artikuluhonen irismenez harantzago dago. Amundarainek (2021) dio esapidearen lekukotasunak Hegoaldean aurkitzen direla XX. mendean. Halakoak badaude, bai, mende horretan:

- (59) Zer? Nere besoetako umiari ori zertu? *Nork eta zuk*, alper ontzi orrek? (T. Altzaga, *Neskazar*, 1923, 86)
- (60) Bestelako ona degu onako Ama auxe! Erregiñen erregin, zeruaren zeru: orrek arritzen gaitu: *nor eta arantzán-Zu?* Arkaitzik zakarrenen artean izkutu, orrek arritzen ere *non eta Arantzán-zu?* Zazpi aizpatxo dira euskaldun Birjiñak, zein baño zein beltxeran, zein baño zein piñak. Alata ere, baña, Ama errukitsu! *non eta Arantzán zaude?* *nor eta arantzán Zu?* Maitako degu, maita, Amaren arantza. (S. Mitxelena, *Arantzazu, euskal sinesmenaren poema*, 1949, 34)
- (61) Aldean naikoa diru dauan gazteari, izan bere, *nok eta txologa bateko arduradunak* egin bear ete deutzaz ainbeste itaune? Bere bizialdikoan, lenengoz daki Nikanor-ek orrelango konturik. (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 1962, 169)

Hala ere, esan behar da XIX. mendearen amaierako lekukotasunak ere aurki daitezkeela:

- (62) Nora? itandu eutsan Errokek mandazaiñari. Gabaz bakarrik ibilli bear baleu, taketa legetxez gogorturik topako genduke au. Eztago leku txarrean gauzea. *Nora ta Erriojara, nor da Txanton*, bai zera!! Ik, Perrandes, barreka diarduk, baña eztakik oraindiño Txanton nor dan. (R. M. Azkue, *Bein da betiko*, 1898, 58)
- (63) Neurea nebalako? Eta zer? *Zer eta emen prankotarra*, atzo goizean agerturiko arrotz lapurra baizen besterik? Eta zeñek ez dauka lapur bat irainduteko eskubidea? Kristoren sinismenekoak ezgarala! Sinismen orrek e, ez dakit gaiñezka eragingo ez ete deustan. (T. Agirre, *Auñamendiko lorea*, 1898, 37)

Lekukotasunok iradokitzen dute egitura hau XIX. menderako bazegoela indarrean. Inpresio hori Iztuetaren (1824) adibide honek berretsiko luke:

- (64) Nork sinistatuko zuen denbora batez Gipuzkoan, iru eun ta geiago urteren buruan ain gozotoro gordakaiatu izandu dan Done Inazioren martxa sonatu gogoangarria, *nork eta erri bereko danbolin aundi ustez betetakoak* ixekaturik, urruñaturik eta irauturik aienatu bear zutela? Ala gertatu zaiku bada nere erritar maiteak. (J. I. Iztueta, *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira*, 1824, 39)

Jakina, mereziko luke XIX. mendeko, eta are lehenagoko, testuak arretaz arakatzea baina egun daukagun informazioarekin lasai asko esan dezakegu egitura hau jada XIX. mendean, Hegoaldean behintzat, arrunt erabiltzen zela.

VII. ONDORIOAK

Artikulu honetan, proposatu dut [NZ-hitza eta X] egituran oinarrituta euskarak foku miratiboaren baliabidea erabiltzen duela; egitura horretan NZ-hitzak balio existentziala dauka (bada «x» bat) eta bigarren juntagai den X sintagmak identifikatu egiten du lehen juntagaian zabalik geratzen den aldagaia; egiturak duen ñabardura erantsia da NZ-hitzak identifikatzen duen balioa hiztunaren iritzian harrigarria eta esperogabea dela, ez baita NZ-hitzaren esparruko ohiko balioa. Egitura hau bateragarria da A2 fenomenoarekin edo ezkerreko periferiara mugida egiten duen foku mugidarekin, baina ez du zertan ezaugarri hau bete; izan ere, juntadura egiturak aski autonomia prosodikoa du eta perpausaren edozein alderditan¹⁹ bete dezake foku miratiboaren funtzioa. Egitura hau XIX. mendean Hego Euskal Herrian sortua dela dirudi eta, gaur egun ere, arrotza zaie Iparraldeko hiztunei.

Etorkizunari begira, interesgarria litzateke Hegoaldea eta Iparraldea banatzen dituen ezaugarri edo mikroparametro honen jatorria arakatzea (emendiozko juntaduraren gramatika orokorra baita, printzipioz, mugaren aldi bietan), bai eta [NZ-hitza eta X] ohiz kanpoko juntadura egitura honen analisi semantikoa ere modu formalagoan zehaztea.

ERREFERENTZIAK

- Aikhenvald, A. Y. (2012) «The essence of mirativity», *Linguistic Typology*, 16, 435-485.
- Amundarain, I. (2003) «Coordination», in J. I. Hualde + J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, Berlin, Mouton de Gruyter, 844-892. or..
- Amundarain, I. (2021) «Juntadura», in Euskararen Gramatika Batzordea (arg.), *Euskararen Gramatika*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1089-1205. or..
- Arregi, K. (2003) *Focus on Basque movements*, MIT doktorego tesia.
- Artiagoitia, X. (2000) *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*, Gasteiz, Arabako Foru Aldundia-UPV/EHU.
- Bošković, Z. (2023) «Multiple wh-fronting in a typological setting: What is behind multiple wh-fronting?», University of Connecticut-eko eskuizkribua.
- Cinque, G. (1993) «A Null Theory of Phrase and Compound Stress», *Linguistic Inquiry*, 24.2, 239-297. or..
- Cruschina, S. (2012) *Discourse-related features and functional projections*, Oxford, Oxford University Press.

¹⁹ Egia esan, foku posizioa bete ezik, [NZ-hitza eta X] egiturak joera du edo perpaus hasieran edo perpaus amaieran, periferian beti ere, agertzeko. Honek ikerketa sakonagoa merezi luke.

- Cruschina, S. (2021) «The greater the contrast, the greater the potential: On the effects of focus in syntax», *Glossa: a journal of general linguistics*, 6(1): 3. 1–30. or.. DOI: <https://doi.org/10.5334/gjgl.1100>.
- DeLancey, S. (1997) «Mirativity: The grammatical marking of unexpected information», *Linguistic Typology* 1, 33–52. or..
- DeLancey, S. (2001) «The mirative and evidentiality», *Journal of Pragmatics*, 33, 369–382. or..
- Elordieta, A. (2001) *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, Leiden University doktorego tesia.
- Elordieta, A. + B. Haddican (2016) «Strategies of verb and verb phrase focus across Basque dialects», in B. Fernández + J. Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the Grammar of Basque*, Amsterdam, John Benjamins, 221–242. or..
- Etxepare, R. (1998) «A case for two types of Focus in Basque», in E. Benedicto, M. Romero, + S. Tomioka (arg.), *UMOP 21: Proceedings of the Workshop on Focus*, Amherst, GLSA, 65–81. or..
- Etxepare, R. + M. Uribe-Etxebarria (2009) «On negation and focus in Spanish and Basque», in X. Artiagoitia + J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan Patxi Goenagaren omenez*, Bilbo, UPV/EHU, 287–309. or..
- Euskaltzaindia (1991) *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (I)*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia (1994) *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (IV). Juntagailuak*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Fábregas, A. (2016) «Information structure and its syntactic manifestation in Spanish: Facts and Proposals», *Borealis: An International Journal of Hispanic Linguistics*, 5.2, 1–109. or..
- Fábregas, A. (2020) *Las categorías funcionales*, Madril, Síntesis.
- Fiorini, M. (2020) «Information structure and syntax: two positions for focus in Basque», in S. Akamine (arg.) *Proceedings of the 31st WECOL 2019, Volume 35*, Fresno, CSU, 19–30. or..
- Irurtzun, A. (2016) «Strategies for argument and adjunct focalization», in B. Fernández + J. Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the Grammar of Basque*, Amsterdam, John Benjamins, 243–263. or..
- Lizardi, A. (2024) *Linking the sentence to discourse: a syntactic, semantic and pragmatic analysis of Basque discourse particles*, UPV/EHU doktorego tesia.
- Ortiz de Urbina, J. (1989) *Parameters in the Grammar of Basque*, Dordrecht, Foris.
- Ortiz de Urbina, J. (1994) «Verb initial patterns in Baque and Breton», *Lingua*, 94, 125–153. or..

- Ortiz de Urbina, J. (1999) «Force Phrases, Focus Phrases and Left Heads in Basque», in J. Franco + A. Landa (arg.), *Gramatical Analysis of Romance and Basque*, Amsterdam, John Benjamins, 179-194. or..
- Ortiz de Urbina, J. (2002) «Focus of correction and remnant movement in Basque», in X. Artiagoitia, P. Goenaga, + J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: A Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, Bilbo, ASJUren gehigarriak-UPV/EHU, 511-524. or..
- Ortiz de Urbina, J. (2003) «Ezezko perpausetako fokoak: (galdegaiak eta ukagaiak)», in J. M. Makazaga + B. Oyharçabal (arg.) *Euskal gramatika eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian IKER -14 (I), P. Laffitteren sortzearen mendemugako biltzarra*, Bilbo, Euskaltzaindia, 343-356. or..
- Progovac, L. (2003) «Structure for coordination», in L. Cheng + R. Sybesma (arg.) *The Second Glot International State-of-the-Article Book*, Berlin, Mouton de Gruyter, 241-287. or..
- Rebuschi, G. (2001) «Notes sur les phrases complexes à protase corrélatrice du basque», *Lapurdum*, 6, 261-289. or..
- Ross, J. R. (1969) *Constraints on variables in syntax*, MIT doktorego tesia. [berrargitaratua: Ross, J. R. (1986) *Infinite syntax!*, Norwood, Ablex]
- Rijk, R. P. G. de (1969) «Is Basque an SOV language?», *Fontes Linguae Vasconum*, 1, 319-351. or..
- Rijk, R. P. G. de (1972) *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*, MIT doktorego tesia.
- Rijk, R. P. G. de (1996) «Focus and quasifocus in Basque negative statments», *RIEV*, 41.1, 63-76. or..
- Rijk, R. P. G. de (2008) *Standard Basque. A progressive grammar*, Cambridge MA, MIT Press.
- Salaburu, P. (2021) «Izenordainak», in Gramatika Batzordea (arg.) *Euskararen Gramatika*, Bilbo, Euskaltzaindia, 397-479. or..
- Trask, R. L. (2003) «The Noun Phrase: nouns, determiners and modifiers; pronouns and names», in J. I. Hualde + J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, Berlin, Mouton de Gruyter, 113-186. or..

Erabilitako corpusak:

Ereduzko Prosa Dinamikoa: <https://www.ehu.eus/ehg/epd/>

Euskal Klasikoen Corpora: <https://www.ehu.eus/ehg/kc/>